



## "Txotx!" oihukatzeke garaia

Andoaingo eta Urrietako sagardotegi guztiak zabalik izango dira asteburuan / 6-9

AIURRI

## Aurrekontuari babesa

Andoaingo EH Bilduk eta EAJ-PNVk 2025eko kontuak adostu dituzte / 5

**Santa Ageda bezperako kantu-erronda prestatzeko entseguak, datorren astean, Andoainen / 15**

**Ansak bikain ekin dio Kutxabank Masterseko tituluaren defentsari. Barrenetxearen aurka ariko da asteburuan / 13**



**MATRIKULA OTSAILAREN 3TIK 14RA**

**EGAPE IKASTOLA**  
urnietarron eskola publikoa

943009275 HLH / EIP  
943899425 DBH / ESO  
[www.egape.eus](http://www.egape.eus)

ESKURATU INFORMAZIOA  
+ INFO



**BILERA INFORMATIBOAK**

URTARRILAK 30  
2 URTE  
17:00 Etxeberri

URTARRILAK 29  
DBH  
17:00 Lekaio



## TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



## KOMUNITATEA

HURRIA-SAHARA ANDOAIN

## Oporrak bakean: esperantzari leiho bat

Saharako Euskadiko Ordezkaritza, Oporrak Bakean programa laguntzen duten udalak eta ekimena posible egiten duten elkarte eta harrera- familietako ordezkariok Aiete Jauregian bildu gara 2025eko OPORRAK BAKEAN programaren berri zuei guztioi helarazteko.

Euskal Herrian, urte luzez garatzen ari garen elkartasun ekimena da berau. Tamainaz, mamiz eta iraupenez ere, gure herrian bizirik dirauen elkartasun-ekimen garrantzitsuenetarikoa dela esatera ausartuko ginatke. Harrokeriarik gabe, baina, bai, harrotasunez, esan dezakegu azken 15 urteotan 4.597 haur Euskal Autonomia Elkarkidegoan gure artean hartzeko gai izan gabela, haur guzti horiei osasun arreta bermatu diegula eta guztiontzat esperientzia hezitzaile aparta eskaini diegula.

Oporrak Bakean saharar herriarekiko dugun elkartasun ildo sakonago eta orokorrago baten parte ere bada eta aipagarria da, bai harrera-familien eta bai elkarten ekarpena, Tindufeko errefuxiatu kanpaleketan urtez urte ahalbideratzen dena. Guztion artean eskolak eta osasun-etxeak hobetzen ari gara, gazteen eta emakumeen ahalduntzeari begirako hainbat formakuntza eskaintzeaz gain, sahararrak eurak formatzen ari gara,

oinarrizko beharrei erantzunak ematen dihardugu, ur-horniketarekin lotutakoak, esaterako.

Haur sahararrak gure etxe eta familietan hartzeak beren osasunerako duen garrantzia ukazina da. Errefuxiatu sahararren bizi-baldintzak nazioarteko laguntza humanitarioaren eta gero eta larriagoak diren muturreko klima-baldintzen menpe daude: Saharako hiru haurretik batek bakarrik jasotzen du hazkuntza egokia izateko behar duen dieta. Beraz, OPORRAK BAKEAN programan parte hartzea arnagune bihurtzen da parte hartzen duten adin txikiko umeentzat eta baita haien familientzat ere.

Hankamotz geratuko ginatke esango ez bagenu guk, gure ingurukoek eta gure familiek ere zenbat jasotzen dugun guzti honekin. Elkartasun-keinu honetan guztiok ateratzen gara desberdin, guztiok ateratzen gara aberastuta, guztiok ateratzen eskertuta. Gugandik asko ikasten duten arren, guk eurengandik ere jasotzen duguna asko delako.

OPORRAK BAKEAN ekimena urte luzez temati eta arduratsu dabilen ahalegina da. Saharar-herria eta sahararrak urte luzez ari dira itxaroten bere eskubideak aitortu eta autodeterminazio erreferendum bidez beren

etorkizun politikoa erabakitzeko, Nazio Batuak hitz emandakoa eta legez eta eskubidez dagokiena. Afrikako azken kolonia da Mendebaldeko Sahara eta erbestean eta basamortuan bizi beharra jasateaz gain, gerra ere pairatzen ari den herria da Mendebaldeko Sahara. Dena kontra duen herria baina etsitzen ez duena eta esperantza galtzen ez duen herria da Mendebaldeko Sahara.

Horregatik guztiagatik aurtengo leloa eta irudia: "Esperantzari leiho bat".

OPORRAK BAKEAN ekimena hori ere bada, ESPERANTZA alegia. Ekimena egingo dugun azken uda izango denaren esperantza, Mendebaldeko Saharara aurki bueltatuko diren esperantza, herri oso baten esperantza gehien maite dutenek gurera ekarriko dutena: bakearen enbaxadoreak, haur sahararrak.

Herri ororen esperantza haurrak direla esaten da eta gu guztion ahaleginari esker, haurrei Euskal Herrian udako egonaldia eskainiko diegu osasunaren eta bizipozaren leihoa zabalduz.

Urtarrilean hasita eta martxoaren 15a arte, aurtengo OPORRAK BAKEAN kanpaina martxan dago. Gaur hemen arduradun ugariren artean elkarrekin kideak eta

harrera-familia direnak ere badaude eta guztioi gure esker ona adierazi nahi dizuegu.

Euskal Autonomia Erkidegora 2022an, 153 haur saharar etorri ziren; 2023an, 183 haur eta, 2024ko udan, 188 haur ziren. Aurten, ahal den eta ume gehienei eskaini nahi diegu aukera. Horrek harrera-familia gehiago lortzeko ahaleginetan murgiltzen gaitu. Izan familietara, izan aterpetxeetara, ekin diezaiozun lanari anbizioz eta determinazioz, jakinda, lortzen dugun harrera-familia bakoitza izugarri garrantzitsua dela ume horientzat.

2025eko udan harrera-familiez gain, aurten ere 4 aterpetxe ere izango ditugu: hiru, Bizkaian, eta berri bat, Gipuzkoan. Familien garrantziaz gain, aterpetxeek elkar zaintza komunitariotik

programa honi egiten dioten ekarpena ere azpimarratu nahi dugu.

Agerraldi horren bidez, euskal herritar orori deia luzatzen diegu OPORRAK BAKEAN elkartasun ariketa komunitario eder honetan parte hartu dezan. Deia luzatzen dugu gure etxeetan uztailean eta abuztuan ume saharar bat etxean har dezagun. Erakunde eta eragile asko ditugu gure alde eta bidelagun eta ardura izan arren, erabakia norbanakoarena den arren, erantzukizuna kolektiboa da; badugu eskarmentua eta harrera-familia handi bat osatzen dugu guztiok. Zu ere konplize izatera gonbidatu nahi zaitugu. Zu ere esperantza-leiho izatera deitzen zaitugu. Zu ere harrera- familia izatera deitzen zaitugu.

andoainDARRA  
euskaraz



## POSTONTZIA

PLASTIGAUR ANDOAIN

## Euskararen erabilerak gora, Plastigaurreko barne-harremanetan

Plastigaur enpresak estrusio, inprimaketa eta ijezketa-zerbitzu integratua lan egiten du. 1989an hasi zuen bidea eta gaur egun ezaguna da Andoingo enpresa bilgarri eta enbalaje industrialak egiteagatik, baita Ekonomia Zirkularrean egin duen ibilbideagatik ere.

Ehun langile baino gehiago biltzen dira Plastigaurren egunero-egunero, eta tokiko egoeratik abiatu eta gizartearekiko konpromisora jauzi eginek, 2019. urtean euskararen egoeraren diagnostikoa egin eta Euskara Plana diseinatu zuen Elhuyarrek batera. Helburu propioak ditu Plastigaurrek euskarari dagokionez eta horiek lortzeko urtero-urtero hainbat ekintza antolatzen ditu.

Euskara Planaren bidez, euskara normalizatzeko aurrerapausoak eman nahi dira, barne- zein kanpo-harremanetan. Langileen harremanetan eragin zuzena izateko eta euskararen erabilera modu iraunkorrean areagotzeko eta indartzeko prozesu berezi bat egin dute hainbat langilek pasa den 2024an.

Euskara Planaren segimenduaz arduratzen den Euskara Batzordean jaio zen ideia, eta euskara ardatz duen eraldaketa-prozesu txiki batean parte hartzeko proposamena egin zieten Plastigaurreko hainbat langileri 2023an. Izandako arrakasta ikusirik, 2024an ere lan horri segida ematea erabaki zuen Batzordeak, eta oso emaitza ona izan du.

Elhuyarrek lagunduta, Berbasarea prozesua martxan jarri eta euskararen barne-erabilera handitu da, baita euskararekiko lidergoari buruzko hausnarketari esker, hizkuntza-jarrerak aldatu ere.

Zer da, baina, Berbasarea? Langileen arteko euskararen erabilera handitzeko ariketa



Euskara Planaren bidez, euskara normalizatzeko aurrerapausoak eman nahi dituzte.

da. Borondatekoa da eta bertan parte hartzeko beharrezko baldintza da euskarazko gutxieneko ulermena izatea. Talde-ikuspegia duen ariketa da; izan ere, Berbasarean parte hartu duten langileekin taldetxoa sortu eta beren arteko harremanetan euskara zenbat erabiltzen den jaso dugu. Euskararen erabilera handitzeko eusleak identifikatu ditugu, euskarari eusten dioten pertsonak.

Hiru hilabete iraun ditu prozesuak, eta, guztira, aurreko hiru saiok osatu dute ariketa. Bakoitzean, hizkuntza-jarrerak landu dituzte, elkarren lanaren balorazioa egin eta emaitza hobea izan dadin neurriak hartu dituzte kideek.

Parte-hartzaileek oso ondo baloratu dute dinamika, besteak beste, baliagarria iruditu zaielako aurreiritziak lantzeko, norberak euskararekin duen ibilbidea ezagutzeko eta taldeak

euskaraz lan egiteko dituen aukerak ezagutzeko eta baliatzeko.

Datuei erreparatuta, dinamika hasi baino lehen, euskaldunen arteko euskararen erabilera (euskaraz eta batez ere euskaraz hitz egiten zutenen kopurua) %30 zen. Azken fasean, ordea, %60an gelditu da. Alegia, bikoiztu egin da euskararen presentzia taldean.

Talde-mailako eta norbanako erronkak identifikatu dituzte taldekideek prozesuaren amaieran. Erabilerari eutsi eta gainontzeko lankideak ere dinamikara hurbildu nahi dituzte.

Plastigaurren asmoa da langile euskaldunak aktibatzea eta euskarak barne-harremanetan espazio berriak irabaztea. Beraz, aurrerantzean ere, dinamika hau martxan jartzea aurreikusten dute beste talde batzuekin.

## KOMUNITATEA

TOKIKOM TOKIKO HEDABIDEEN FEDERAKUNDEA

## Goazen, lagunok!



Mundu mailako ekimenarekin bat egin du TOKIKOMek. AIURRI

Sare sozial komertzialak, jendearentzako komunikazio tresna gisa sortu zirenak, gero eta putzu toxikoagoak bilakatzen ari dira. Atzetik dauden multinazionalen diru-gosearen ondorioz, desinformazioa hedatzeko, giza-talde ahulenei eraso egiteko eta eskuin muturreko mezuak haizatzeko makina erraldoiak bilakatu dira. Sare horiei eman diegun eragin ahalmena izugarriak ondorio zuzenak eragiten ditu jadanik mundu osoko giro sozial eta politikoan. TOKIKOMen uste dugu sare horietan jarraitzeak albo-kalte horien konplize izatea dakarrela, eta ez dugu gorpil hori elikatzen jarraitu nahi. Horregatik, hiru erabaki hartu ditugu:

- Sare sozial komertzialak elikatzeari uzten joatea, eta aldi berean, gure medioetan duten presentzia murrizten joatea.
- Sare sozial irekietan parte hartzea, TKM.eus zerbitzari propioarekin, beste era bateko sare sozialak elikatzen eta indartzen joateko.

• Gure jarraitzaile, irakurle eta ikus-entzule guztiak euren sare sozialetako jarduna Fedibertsora eramanez, animatzea, #goazenlagunok kanpainarekin bat eginez. Beste era bateko sare sozialak posible dira: irekiak, algoritmorik gabek eta zentroa komunikazioan jarrita, eta ez etekin ekonomikoan.

Gizartearekiko eta gure publikoarekiko konpromisotik, eta beste gai batzuetan ere egiten dugun moduan (euskara bera, genero berdintasuna, kultur aniztasuna...), gai honetan ere, TOKIKOMek eta taldea osatzen dugun toki komunikabideok gizartearen informazio-dietarekiko kezka eta ardura adierazten dugu, eta guztion onerako, publikoa sare komertzialak utzi eta fedibertsora salto egitera animatzen dugu, horrek epe ertainera guztiontzako mundu hobea egiten lagunduko duelakoan. Etorri fedibertsora, ez zaizu damutuko!



Izagirre andoaindarrak agerikoa du poza, ametsak gauzatzeko bidean baita bere familia, Suchitotoko Las Barillas komunitatean.

# “Jaso dugun elkartasunak hauspoa eman digu”

**NEREA IZAGIRRE EL SALVADORREN BIZI DEN ANDOAINDARRA**

Elikadura burujabetzaren bidean, azken urtetan, El Salvadorren kokatzen den Las Barillas izeneko lur eremuan burubelarri ari da lanean, familiarekin batera

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Nerea Izagirre eta bere familia-egitismo agroekologiko batean murgilduta dabil, elikadura burujabetzaren bidean, azken urtetan, El Salvadorren kokatzen den Las Barillas izeneko lur eremuan. Lau zutabe ditu proiektu horrek: elikadura burujabetza, ingurumenaren zaintza, lan-baldintza duinak sortu eta gazteentzako lan irtenbide bihur-

tzea, eta, lurra lantzearen bidegarritasuna eta eredugarritasuna.

2024an barrena, autogestioa garatzen segitzeko une erabakiorra bizi zuela familia-proiektuak, eta horrexegatik, elkartasun deia luzatu zuen Izagirrek. Andoaindarrak jaioterrian izan da Eguberrietan, eta Aiurrik harekin mintzatzeko aukera eduki du.

**Zer moduz joan da egin zenuten elkartasun deia?**

Eskerrik zintzoena eman nahi dizkiegu ekarpen ekonomikoa egin digutenei azken hilabeteetan, lehenengo eta behin. Familia-proiektua oso une erabakiorrean, aurrera egin ala ez, ezjakintasun egoeran egon da azken aldian, eta ezinbestekoa izan da Euskal Herritik jaso dugun hauspoa; ekonomikoaz haratago,

garrantzitsuagoa izan da animikoa.

Jasotako elkartasunaz gain, bankuek hango kooperatibetako nekazariei ematen dieten kreditu-lerro bati heldu diogu, eta horrela, lur eremua erosi ahal izan dugu orain gutxi. Ilusioz beterik gaude oraintxe, gure zenbait amets gauzatzeko bidean egon baikaitezke etorkizunean. **Lur eremu berri horren erosketak zertan lagunduko dio zuen familia-proiektu agroekologikoari?**

Dibertsifikazioan sakontzea eragingo digu. Gure asmoa ez da ekoizpena handitzea, ez da aberastea. Urte guztian ekoiztea, autosufizienteak izatea ehuneko ehunean, eta soberakinak merkatuan saltzea da gure ametsa, eta horretarako bidea erraztuko digu lur sail berriak. Zehazki, batetik, animalien (txerriak, oiloak, ahuntzak...) abeltegietan integratzea osatu ahal izango dugu. Bestetik, barazkien eta fruta-arbolaren aniztasunean sakontzen segiko dugu; izan ere, izugarriko landaketa-aurkerak irekitzen zaizkigu: yuka, malanga, curcuma, jengibrea, letxuga, platanoa, errukola, berenjena, ahutzen esnerarekin gazta...

**El Salvadorren zuen proiektuak arreta pizten duela adierazi izan duzu lehen ere.**

Halaxe da. Lurra modu tradizionalen ereiteak nagusi izaten segitzen du hango nekazarien mentalitatean; benefizio azkarrak lortzeko monolaborantzan eta agrotokoen erabileran oinarritzen dena, alegia. Eta hortik erroten aldentzen delako pizten du arreta gureak. Hango telebistan behin baino gehiagotan atera izan gara, eta garapen-proiektuetan dabilen GKE askok ere erreferente gisa hartzen gaituzte. Ohitu egin gara bisitariak jasotzera, irrikaz datozenak gure proiektua eta bizimodua ezagutzera.

**El Salvador hizpide izanda, ezin aipatu gabe utzi 2019az geroztik bertako presidentea den Nayib Bukele.**

Sentimendu kontraesankorrek pizten dizkio balore aurrerazaleak dituen edonori. Batetik, aitortu egin behar da lortu duela desagerraraztea El Salvadorrek urtetan bizi izan dituen indarkeria eta segurtasun eza. Izan ere, jasanezina baitzen biolentziaren kultura zenbateraino zegoen zabaldua gizarte-

Maren bandek-eta ezartzen zizuten hilketekin, estortsioekin, emakumeen bortxaketekin, etab. Baina bestetik, ezin dugu ahaztu oinarriko giza eskubideak urratu dituela nahierara, eta batik bat, kaudillo baten antzera jokatzeko duela eta ez duela kapitalismoa edo multinazionalen boterea kuestionatzen.

Kontua da jende gehiena ikararak jota bizi izan dela urtetan, eta bost axola hari Bekelek erabili dituen medioak; emaitzak bakarrik hartzen ditu kontuan, eta alde horretatik erreala da “garbiketa”. Gehiengoa gustura dago Bekelerekin. Publizista da berez, diskurtso seduktorea darabil eta badaki neurri populistak ezartzen, jendea erakartzeko. Ikusteko dago nola uzten duen El Salvador, agintetik aldentzen den egunean...

**Jaioterrira itzuli zara egun batzuk igarotzera.**

Bai. Egia esan, gure familia-proiektuak bultzada erabakiorra jaso duen une berean, Valentziako CERAI (Landa Ikasketetarako eta Nazioarteko Nekazaritzarako Zentroa) Gobernu Kanpoko Erakundeak berarekin lan egiteko aukera eman dit. Bat egiten du gure filosofia agroekologikoarekin, eta ildo horri eutsiz El Salvadorren zenbait egitismo garatzen ari denez, egokia ikusi du nire profileko pertsona batekin lankidetzan jardutea. Ardura berri horrek ekarri nau Valentziara eta Euskal Herrira, eta jaioterrian egun batzuk igarotzeko probestu dut egonaldia.

**13 bat urte daramazu El Salvadorren. Urte mordoxka jaioterritik urrun.**

Eguneroko bizitzan oso estututa eta estresatuta sumatzen dut jendea Euskal Herrian; ez dut gogoko zer nolako dinamikan murgilduta bizi den jendea. Mundu honetan gaudela, bizitzari zentzua topatu behar zaio, eta nik uste hori lortu dudala El Salvadorren. Sustraiak egin ditut han, erabat ilusionatuta nago hango bizimoduarekin, are gehiago azken hilabeteetan eman dugun pauso erabakiorrearekin.

**“EGUNEROKOAN OSO ESTUTUTA SUMATZEN DUT JENDEA EUSKAL HERRIAN”**





Marta Lasa alkate-ordea (EH Bildu), Andoni Alvarez alkatea (EH Bildu), Imanol Goenaga (EAJ-PNVko bozeramailea) eta Idoia Mikelez zinegotzia.(EAJ-PNV). AIURRI

#### Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Astearte eguerdian agerraldi bateratua egin zuten EH Bilduko eta EAJ-PNVko ordezkariak, 2025eko Udal aurrekontu proposamenarekiko adostasuna iragartzeko. Diotenez, abenduan ekin zioten negoziaketei eta aste gutxiko epealdian lortu dute adostasuna. Aurrekaria 2024ko jardunean aurki daiteke, eta bi alderdi abertzaleentzat esperientzia positiboa izan zen, beste urte batez, ados jartzeko gai izan baitira.

Protokoloari jarraituz, heda-bideen aurrean azaldutakoa sinatu zuten. Sinadura-ekitaldian, bina ordezkari izan ziren. Gobernu ardurak dituen EH Bildutik, Andoni Alvarez Andoaingo alkateak eta Marta Lasa alkate-ordeak parte hartu zuten. EAJ-PNVren aldetik, aldiz, Imanol Goenaga bozeramaileak, eta Idoia Mikelez zinegotziak.

#### Gobernu taldearen proposamena aberastu da

Andoni Alvarez alkateak EAJ-PNVkoen ekarpenak aintzat hartu zituen agerraldian. Haren hitzetan, jeltzaleen ekarpenekin udal aurrekontu proposamena "aberastu eta hobetu egin da".

#### Oposiziotik eraginkor izan nahi dute jeltzaleek

Imanol Goenaga jeltzaleak, aldiz, iaz egin bezala, eraikitzaile izatearen garrantzia azpimarratu zuen: "oposiziotik bada ere, eraginkorrak izan eta ekarpen

# "Herriaren aldeko akordioa"

Agintaldiaren bigarren urtean ere udal aurrekontu proposamena gehiengo batez onartuko da, EH Bilduk eta EAJ-PNVk adosturikoak gehiengo zabala bermatzen baitu bozketan. Elkarrekin Podemosen eta PSE-EEren jarrera datozen egunotan argituko da

ugari egin ditugu, herriarentzat onuragarri diren ekimenak txertatuz".

Alde biek balioan ipini zuten agintaldiaren lehen urtean egindako ahalegina, eta aurrekari hura laguntza handikoa izan da 2025eko negoziaketei begira. Modu horretan, bi alderdien ustez, herrian eskuartean diren erronka nagusienei aurre egiteko erantzun bateratua eman ahalko da. Prentsa-oharraren goiburua akordioaren filosofia zein den jaso zuen: adostutakoa "herriaren aldeko akordio berria" da.

Ikusi behar, urtarrilaren 30eko plenora bitarte, Elkarrekin Podemosen eta PSE-EEren jarrera zein izango den. Iaz, moreek bat egin zuten proposamenarekin eta sozialistak, aldiz, kritiko agertu ziren. Aurten ere, gauza bera gerta daiteke.



#### "EAJ-REN EKARPENENKIN ABERASTU EGIN DA AURREKONTUA"

ANDONI ALVAREZ, ALKATEA



#### "OPOSIZIOTIK BADA ERE, ERAGINKORRAK IZATEKO EKARPEN UGARI EGIN DITUGU"

IMANOL GOENAGA, JELTZALEA

## Neurri zehatzak adostu dituzte

Andoaingo 2025eko udal aurrekontuetan gauzatu beharreko neurri zehatzak adostu dituzte:

- 2024an adosturikoari jarraipena ematea. Betetzeko edo betetzear diren konpromisoak diruz hornitzeko partidak: Iztuitzaga Dorretxeari buruzko ikerketa (25.000 euro), Leitzarango papertegian lurzoruen deskontaminazio eta kudeaketarako azterlanak (70.000 euro), Kirol Egokitua sustatzeko hitzarmena (12.000 euro), besteak beste.
- 80.000 euroko partida Galardi Haurreskolako jolastokian hobekuntza lanak egiteko.
- 30.000 euroko partida herriko lurzoru eta espaloietan irristaketan aurkako tratamendua emateko.
- 80.000 euroko partida Leizaur parkearen azpikaldean WC publiko autogarbigarria eta irisgarria ipintzeko.
- 100.000 euroko partida Bertxingo zentralean eguneratze-lanak gauzatzeko.
- Udal gerakina zenbatekoa den jakitera ematen denean, inbertsio estrategiko nagusiei aurre egiteko kreditua bermatzea, hainbat jardueratan: Allurralde kiroldegia zabaltzeko proiektua eta egungo instalakuntzen eraberritzea; Udal Liburutegi berriaren proiektua; Udal brigadarentzako pabiloi berria.

Akordioaren gauzapena gertutik jarraitzeko, bi alderdietako ordezkariak jarraipen batzordea sortuko dute. Hiru hilabetero elkartuko dira.





Lizaso eta Gaztañaga, Belokiren albo banatan. Azken hura izan zen irekiera ofiziala egin zuen andoaindarra. AIURRI

# Giro aparta, Andoaingo txotx garaiaren irekieran

Jende asko, giro aparta eta txotx berria dastatzeko aukera: ezin gehiago eskatu txotx denboraldi berriari. Auzotarrek sustatuta, eta Andoaingo Udalaren lankidetzarekin, hasiera bikaina eman zioten andoaindarrek sagardotegi garaiari

## Xabier Lasa ANDOAIN

Martxa bizian dira Gaztañaga eta Mizpiradi sagardotegiak, joan den ostiralaz geroztik. Udal-erri mailako irekiera-ekitaldia Gaztañagan egin zuten eta bertan Ion Belokik hasiera ofiziala eman zion. Jendetza elkartu zen: 130 lagun ziren afarian! Bada, Buruntza auzunean bezala, Leizotzen ere sagardozale ugari elkartu zen, Mizpiradik ere egun berean zabaldu zituelako atek. Eta, lehen asteburuan, lanez lepo ibili dira.

Astigarragan, Usurbilen, Urnietan... Irekiera-ekitaldiak zabalduz doaz eta Andoainek bat egin du joera horrekin. Txandaka, Gaztañagan eta Mizpiradin, emango diote hasiera txotx garaiari. Aurtengoa Gaztañagatarrerean izan zen eta bertsoak nahiz musikak protagonismo berezia izan zuen. Bi alor horiek baitira Ion Belokiren ibilbidean ezinbestekoak. Hark eman zion denboraldiari hasiera ofiziala eta ezagun da bertsogintzan eta kantugintzan egin duen ibilbidea.

Aurreko egunetan egin zuten hedabideen aurreko agerraldia, Andoni Alvarez Andoaingo alkatea eta Ainhoa Aiertza Buruntzako auzotarren ordezkaria gertu zituztela. Ostiral iluntzean, berriz, irekierari ekin zioten. Giro alaietan igaro zen gaua eta, horretan, ezinbestekoak izan ziren Sebastian Lizaso, Ion Beloki eta Aritz Eskuderoren bertsoak, Aire Eire musika taldearen abestiak eta, nola ez, denboraldi berriko muztoa. "Txotx!" oihukatzeke garaia heldu da.

## Denboraldi hasierako afaria



Jendetza elkartu zen Gaztañagan. AIURRI

**Jendetza Gaztañagan** Andoaingo txotx-irekiera festa Gaztañagan egin zen eta, datorrenean, Mizpiradin izango da. Aurtengoa ikusmin handia zegoela bistakoa da, 130 lagun elkartu baitzen.



Lekuona, Atxega eta Mujika. AIURRI

**Aire Aire** Musikaz gozatzeko aukera izan zen aurreko ostiralean, zeltiar musika egiten duen taldearen eskutik. Aitor Atxega, Xabier Mujika eta Josu Lekuona hirukoteak hainbat pieza jo zituzten zuzenean.



Lizaso, Beloki eta Eskudero. AIURRI

**Bertsoa** Ion Belokik egin zuen txotx garai berriaren irekiera eta, ondoren, bertsoan aritu zen Lizasorekin eta Eskuderoekin. Saio bikaina egin zuten, algaraka jarri baitzituzten sagardozaleak behin baino gehiagotan.



Asteazken goizean Tanco egin zuen txotx denboraldiaren irekiera. Arratsalde, hitzaldia eman zuen Urnietan. AIURRI

# Tanco, Urnietako txotx garaiaren irekierako protagonista

Denboraldiaren irekieraren lekukoa jaso du Ignacio Tanco, Nerea Arrutiri zein Imanol Ansari segida emanez. Tanco Europako Espazio Agentziaren eguzki-sistema arloko burua da. Atzerrian, zerura begira dago eta, Urnietan, lurra emandako fruitua dastatu zuen

## Erredakzioa URNIETA

"Gure Adarraren sagardoa" lelopean, martxan da, jada, Urnietan ere, aurtengo txotx denboraldia. Oianume sagardotegian egin zuten sasoiaren aurkezpen-hitzordua, asteazkenean, eguerdiko 13:00tan. Bertan izan ziren, besteak beste herriko zein lurraldeko ordezkari politikoak eta Urnietako ekoizleak, alegia Altuna sagardotegia zein Eula sagardotegia. Jorge Segurado alkateak egin zituen aurkezpenaren gidaritzak.

## Gorputz handiko uza

Beste askoren artean, Patxi Iribarrek hartu zuen hitza, aurtengo herriko sagardoaren gaineko azalpen guztiak emateko: orotara, 171.150 litro sagardo ekoitzi dituzte 2024ko uztan Urnietako sagardotegiek, eta horietatik 86.000 litro dira Euskal Sagardoa. Azken horretarako, horrela, 125.000 kilo sagar erabili dizute ekoizleek, Oianume nagusiaren esanetan: "Uza txikia izan da, baina izaera handikoa. Beraz, kolore eta gor-

putz handikoa atera da; luzera begira, bilakaera oso ona izango du aurtengo sagardoak".

## Tanco, protagonista berezia

Aurten, Ignacio Tanco urnietarra izan da ekitaldiko gonbidatu berezia. Europako Espazio Agentzian, eguzki-sistema burua da eta bere eskutik iritsi da herriko lehen txotx ofiziala: "Sagardo hau galaktikoa da!". Aukeran Dantza Konpainiak Agurra dantzatu zion Txanbolin Txistulari Bandaren laguntzaz.

## Urnietako sagardotegiak, prest



Herriko ekoizleak, ordezkari politikoeekin batera. AIURRI

**Ekoizleak** Sagardogileak, urte luzez, bost izan dira Urnietan. Bada, orain hiru dira: Altuna, Eula eta Oianume. Hirurak irekiera-ekitaldian izan ziren. Gainerako biei dagokionez, Setien itxi zuten eta Elutxetan dagoeneko ez dute sagardoa ekoizten.



Sagardoa kupeletik edateko prest dago. AIURRI

**Eskaintza** Hilaren 6an denboraldiari hasiera eman zioten Oianumen. Asteazken honetan atea zabandu zituen Altuna sagardotegiak eta ostiral honetan iritsiko da Eularen txanda. Urnietako hiru sagardotegiak, beraz, martxan direla esan daiteke.



Aukeran Dantza Konpainiako kidea protagonistari Agurra dantzatzen. AIURRI

**Irekiera-ekitaldia** Urnietako Txotx irekieraren bigarren edizioa antolatu du Urnietako Udalak. Iaz, Altunan egin zuten estrainekoa. Aurten, Oianumen izan da eta hurrengo urtekoa Eulan izango da. Txandaka egingo baitute irekiera.



# "Sagardoa egin berria da eta uzta polita dugu"

**JON MIKEL ARRUABARRENA** MIZPIRADI SAGARDOTEGIA

Leizotz aldeko sagardotegiak maiatzaren amaierara bitarte luzatuko du txotx garaia. Hortik aurrera, eskaintza zabaldu eta urte osoan irekita izango da Mizpiradi

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Ireki berritan Aiurrira hurbildu da sagardogile gaztea.

**Berriro ere martxan, Jon Mikel.**

Aurreko asteburuan irekita, berriro martxan gaude. Ostira-lean egin zen irekiera ofiziala Andoainen, eta asteburu osoan izan dugu jendea gurean. Pozik gaude bezeroak etortzen hasi direlako sagardotegira. Sagardoa egin berria da eta uzta polita dugu.

**Hemendik aurrera, geratu gabe.**

Bai, larunbat eguerdiro beteta dugu. Ohitura aldaketa eman zen eta askok eta askok larunbat eguerdira begira egiten dituzte erreserbak. Igandean, familiak izaten dira, gehixeago.

**Jar gaitezen Inauterietako datei begira. Dagoeneko beteta duzu?**

Bai, halaxe da. Bazkaltzeko eta afaltzeko beteta dugu Inauterietan.

**Zer moduz joan da udazkeneko atariko lana?**

Sagar gutxi izan da hemen, izara handikoa eta kanpotik gehixeago ekarri behar izan dugu. Baina bestela ondo joan da. Aurtengo uzta atzeratuta zeterren, udaberri eta uda euritsua izan zelako. Horrek uzta atzeratzea eragin zuen.

**Hurbiltzen zaizkizun bezeroak nola bereziko zenituzke?**



Jon Mikel Arruabarrena Mizpiradi sagardotegiko arduraruna. AIURRI

Andoaingo bezero asko ditut, noski, baina baita Urnieta, Lasarte-Oria eta ondoko herrietakoak ere. Estatutik asko hurbiltzen dira: Madriletik, Kataluniatik eta Espainiako hainbat tokitatik.

**Kanpokoen artean, errepikatzen duenik ba al da?**

Bai, eta bestela hemen izandakoak inguruan aipatu eta haien lagunak eta gertukoak ere hurbiltzen dira. Atzerritarrak ere noizean behin izaten ditugu. Ostegun honetan, esaterako, bisitaldi gidatua antolatu du Sagardogileen elkarteak. Kasu horietan, goiza Albaola Itsas Faktorian edo Igartubeitia museoa izaten dira, eta ondoren Mizpiradira ekartzen dituzte bazkaltzera.

**Sagardogileen elkarteko kide izatea garrantzitsua da, sektorearen ikuspegitik.**

Guretzat elkartean egotea babes bat izatearen parekoa da. Ibilbide polita egiten ari dira marketingean eta estrategian, eta etorkizunera begira ikuspegi bat lantzen ari dira etengabe. Horri begira egotea garrantzitsua da guretzat.

**Ez da plan txarra Andoaindik oinez Mizpiradira hurbiltzea.**

Ez, ez. Eta ez dira gutxi aukera hori egiten dutenak. Asteburu honetan bertan bezero batzuk oinez etorri dira eta, bidean, baserriak eta animaliak ikusteko aukera dute. Ohitura ez dagoenarentzat gozamina da landa eremuko paisaietan barrena ibiltzea.

**Zein aldaketa antzematen ari zara azken urteotan?**

Gurasoek sagardotegiaren mar-txa izan zuten garai hartan, aste tartean bezero asko izaten zuten. Bestalde, urteko uzta dastatzera hurbiltzen ziren eta biharamu-nean lanera zihoazen. Garai

hartan ez zen festarekin hainbeste lotzen. Ikuspegi hori aldatu egin da, orain joera ospakizunari lotuta dago. Lehen, bertako produktu naturala dastatzeko beste balio bat zuen. Orain ere bada horrelakorik, baina bistakoa ospakizunak protagonismo handiagoa hartu duela.

**Ordainketa sisteman aldaketa handia antzeman duzue, ziur.**

Bai, ordainketaren erdia esku-dirutan egiten da eta beste erdia txartelarekin, eskuko telefonoarekin edo ordulariarekin.

**Zenbat lagunentzat egokituta dago sagardotegia?**

80-90 lagunentzat.

**Errespetuzko joerak nagusi dira, oro har, zuen sagardotegian?**

Bai. Talde handiak hartzeko joerarik ez dugu eta, izatekotan, ezaguna den jendearekin egiten dugu salbuespena. Errespetuzko giroa nagusitzen da, ziurrenik, Astigarraga-Hernani aldeko jai-girotik urrun gaudelako.

**Berrikuntzarik izango al duzue, zerbitzuari dagokionez? Eta noiz arte izango duzue zabalik?**

Urte osoan zabalik izango dugu Mizpiradi. Sagardotegiko menuarekin, maiatzaren amaiera bitarte, eta, hortik aurrera, eskaintza zabalduko dugu.

**laz, sagardotegiaren atzealdean estalpea jarri zenuten otorduak kanpoan eman ahal izateko.**


Landa-eremuan gaude eta hori oso erakargarria da. Hori sustatzeko, terraza zabaldu eta udaberriatik aurrera otorduak han egiteko aukera izango da.

**"URTE OSOAN ZABALIK IZANGO DUGU MIZPIRADI SAGARDOTEGIA"**

## Txotx 2025

### GARAIAN GARAIKOA: "TXOTX!"

Elkarrizketak, albisteak... Atal berezia webgunean  
[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)



**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia



# "Gelditzen ez den zikloa da ekoizleonek jarduna"

XABIER ALTUNA ALTUNA SAGARDOTEGIA

Prest ditu, jada, kupelak Altuna sagardotegiak, txotx egiteko. Irekieraren bezperako egunetan bildu da Aiurri bertako gidari den Xabier Altunarekin



Senitartekoen izena jari die, aurten, kupelak Xabier Altunak. AIURRI

**Alba Cabrera Jauregi URNIETA**  
Irikitzear da Altuna sagardotegia. Prest al daukazue guztia, martxan jartzeko?

Gezurra badirudi ere, oraindik, ez daukagu guztia prest, azken orduko xehetasunak falta zaizkigu egiteko, pintaketa lan txiki batzuk, ateran baten markoa... Baina, bai, gainontzeko guztia iri neurria hartuta diogu, behintzat.

**Sagardozeleek txotx denboraldiaz gozatzeko, ordea, lan mordoxka egiten duzue urte osoan ekoizleek.** Zalantzarik gabe. Ondo esan duzun bezala, oso garrantzitsua da nabarmentzea ez dela, soilik, txotx-denboraldia bakarrik, urte osoan egiten baitugu ekoizleok lan. Irail erdialdean, sagarra biltzen hasten gara, ondoren, sagardoa egiteko, kupelatan sartzeko, hartidura kontrolatzeko, ontzi-aldaketak, nahasketak... Zeregin asko izan ohi dugu, denboraldiari begirako prestaketaren aurretik. Urtariletik

maiatza hasierara irauten du, gutxi gorabehera, txotx garaiak. Bada, denboraldiaren azken asteetan, apiril-maiatz aldean, botilaratze handienari ekiten diogu, urte osorako egon dadin. Dena den, udan da banaketa handiena egiten dugun sasoa. Ez du etenik gure lanak: orain, botiletan dugun sagardoa pasaden uzta da, 2023koa, alegia. Hori bukatu bezala, berria botilaratzen hasiko gara; gelditzen ez den zikloa da sagardo-ekoizleonek jarduna. Bodega bat garelako esatea dut gustuko.

**Agenda, jada, otorduz beterik edukiko duzue honezkerok...**

Bai, bai! Larunbat eguerditako joera dago, aurten ere. Badirudi ez dagoela ez beste egunik, ez beste otordurik ere. Gaueko erreserbatan ez dago horrelako erokeriarik: printzipioz, Aste Santura arte beteta daukagu tokia, larunbat eguerditan. Maiatzaren 11 arte irekitzen dugu, azken larunbat horietan tokia

egongo litzateke. Egia da, behin Aste Santua iritsita, jaitxi egiten direla erreserbak, beste plan batzuei begira baitago jendea. **Nongotarrak dira, nagusiki, zuenera gerturatzeko diren sagardozeleak?** Bertako bezeroa daukagu, gehienbat, tokikoa. Urnietatik hasita, Donostialdeko jendea etorri ohi da Altunara. Andoaindik aurrera, Tolosaldea, Goierri... Eskualde horietatik ere bai, Nafarroa iparraldetik, Iparraldeetik... Gurean ez dira autobus-ilara luzeak ikusten, ez dira Logroñotik edo Bilbotik etorritakoak izaten; ez da gure bezero ohi-koena. Finean, txikia da gure sagardotegia, ehun pertsona kabitzen dira, gutxi gorabehera. **Astegunei begira, gelditzen al da aste barruko xarmarekin gozaten duenik?**

Bai, dudarik gabe. Guk, aurten, itxita izango ditugu igande gauak zein astelehenak. Baina, asteartetik hasita, bazkariak nahiz afariak izango ditugu. Sagardo-

zale gutxi ibili ohi da, asteburuarekin alderatuta. Normalean, jende heldugoa etorri ohi da astegunetan, gertuko jendea.

**Ekoizpenari erreparatu gero, zenbat litro ekoizti dituzue zuenean?**

Joan den urtean baino zertxobait gehixeago ekoizti dugu, litrotan. Aurten, gainera, Altunako sagardoa, Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenarekin, botiletan edukiko dugun lehenengo aldia izango da. Izendapena orain bi urte egin genuen; joan den urtean, ekoizpena eta, aurten, estreinakoz, ekoizpenaz gain, botilaratu ere egingo dugu.

Sagar-kopuruari dagokionez, uzta txikia izan dugu, baina Gipuzkoan dezente erostea lortu dugu. Kanpotik ere zerbait ekarri dugu, Normandia aldetik. Proiektu bat jarri berri dute martxan Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenak eta Sagardogile Elkartetik, kanpoko sagarrekiko mendekotasuna txikiagoa izan dadin. Finean, tona asko behar dira eta arazo handia dugu horrekin, ez baitago hemen nahikoa sagar, baina ezta horiek biltzeko nahikoa langilerik ere. Sagardotegi txikia gara gu, baina sumatzen dugu.

**Maite Retolaza Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren lehendakariak aurkezpenean azaldu bezala, gorputz dextentekoa atera omen da aurtengoa, usaintsua. Bat egiten al du Altunako sagardoak definizio orokor horrekin?**

Badaramagu urte batzuk esaten, definizio orokor bat egitea ez dela oso erraza, tokian-tokian aldatu egiten baita, sagardotegi batetik bestera. Ez naiz definizio orokorrak egitearen zalea, aldaera mordoa egon daiteke-eta, etxe bakoitzak bere kutsua baitauka, nor bere nahasketak egiten ditu. Ez zait iruditzen, hortaz, erantzun erreala jasoko duenik galdera hori egiten duenak.

**Probatzera etorri beharko, hortaz?**

Hori da, zalantzarik gabe! (Barreak). Kupel berria erosi dugu, gainera, eta, bertan, lursail jakin bateko uztarekin egindako sagardoa dastatzeko aukera egongo da, 3.000 litro, guztira. Euskal Sagardoa da, eta ez da ohikoena izaten, berezia da.

**Aita Xanti, ama Carmen, aitona Joxe, amona Milagros... Familia-sagardotegia da zuena eta, horren erakusle, kupel bakoitzari ipinitako izena.**

Kapritxoia neukan. Omenaldia egin nahi nien: egun, nirea da sagardotegiaren gidaritza, baina ez gara hasi berriak, hemen jaiotakoak gara, eta badugu ibilbidea eginda.

**Ezusteko albistearekin ekin zioten urnietarrek urteari: Elutxetatik, jada, ez da sagardoa kupeletik behera eroriko. Norabide hori al daukate hartuta etorkizunari begira sagardotegiek?**

Geroz eta sagardotegi gutxiago izango dira etorkizunean, sagardotegiak ekoizle zein botilaratzaile moduan ulertuta eta txotx denboraldia kontuan hartuta. Lasarte-Oriako Otegi itxi zen, Altzagan, Olagi itxi zen, Setien itxi zen... Joera hori nagusituko da.

Prozesu asko hartu behar dira kontuan, makina bat izapide egin beharra dago... Eromena da. Negozioari jarraipena emateko arazoa ere nabaria da, oro har, ez dago sagardotegiei segida emango dien belaunaldirik. Ziurrenik, sagardotegiek ezauzgarriak aldatu eta beste izaera bat hartuko dute, formaz aldatzen joango dira. Sagardotegi izateari utziko diote askok, oinarria galduko dutelako, beste zerbaitzuei emateko. Jada, ez dira sagardotegi izango bere horretan, beste zerbaitetan bihurtuko dira. Baina, bai, ekoizleak? Geroz eta gutxiago, eta joera, segur aski, gainerakoek gelditzen garen horiei erostea izango da.

**Zuenera gerturatzeko interesa duenak, nola egin erreserba?**

Bide zuzenena, eta, oraindik, gehien erabiltzen dena, telefonoa da (943 55 49 17). Ildo beretik, Sagardogile Elkartean online egin daiteke erreserba. Aurten, lehen aldiz, Altuna sagardotegiko web orrialde pertsonala estreinatuta dugu eta bertatik aukera izango da erreserba egiteko. Benetako sagardotegi bat zer den ikusiko du gure atari digitalean sartzen denak: Altunaren historia, botila erosteko aukera penintsula guztian, mahaien erreserba... Aurrerapen txikia eskatzen da, 10 euro pertsonako, online eginda.

**MAIATZAREN 11  
BITARTE EGONGO DA  
IREKITA ALTUNA,  
ASTEARTETIK  
IGANDERA**



Enara Donavera Garcia, Jone Izagirre Goenaga eta Mikel Lertxundi Ariztegi. AIURRI

# "Musika-esperientzia errealagoa bizitzen lagundu digu diskoaren grabaketak"

Euskal kantu ezagunen bertsoak biltzen ditu "Haritik" diskoak. Bada, bertan, hiru urnietarrek hartu dute parte, musika-eskolako Kristina Solano Maiza irakasleak bultzatuta

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA Berriki, "Haritik" diskoan parte hartzeko aukera izan dute hiru urnietarrek, Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen ekimenez: batetik, Malen Barenetxea Solanorekin batera, Iruzta taldea osatzen dute Jone Izagirre Goenaga eta Enara Donavera Garcia herrikideek. Bestetik, Ai Ama! taldean da Mikel Lertxundi Ariztegi, inguruko beste herri batzuetako kideekin batera. Hirurak Lourdes Iriondo musika-eskolako ikasleak dira.

**Nola iritsi zitzaizuen "Haritik" diskoan parte hartzeko aukera?**

**Mikel Lertxundi:** Kristinak (irakasleak) proposatu zигun eta horrela eduki genuen proiektuaren berri.

**Jone Izagirre:** Gure kasuan ere antzekoa izan zen. Ea txapelke-

tan parte hartu nahiko genukeen galdetu zigun Kristinak, eta baiezkoa eman genion.

**Enara Donavera:** Geure burua grabatu behar genuen eta abestia bidali lehiaketara. Bada, "Haritik" diskorako estudio batean grabaketak egitea zen irabazleen saria.

**Estudio batean sartzen zareten lehen aldia izan al da?**

**E.D.:** Bai, lehen aldia genuen hirurek horrelako zerbituetan eta oso esperientzia ona izan da. Ereñotzun izan ginen Pello Gorrotxategiren Aieka estudioan.

**J.I.:** Bertara bi egunez joateko aukera eduki genuen guk, eta oso gustura egon ginen teknikariarekin. Guztia geure erara egin genuen eta oso eroso sentitu ginen.

**M.L.:** Guk egun bakarra eduki genuen grabaketa egiteko, bai-

na asko lagundu zigun teknikariak.

**Zer eman dizue zuen sormena musika-eskolatik atera ahal izateak?**

**E.D.:** Niretzat, behintzat, oso garrantzitsua izan da, normalean, diozun bezala, asko mugatzen baikara musika-eskolako kontzertuetara eta ez ditugu horrenbeste pausu ematen. Horrez gain, inportantea izan da, era berean, jendeak diskoa entzun duela eta gustuko duela jakitea.

**J.I.:** Musika-esperientzia errealagoa bizitzen lagundu digu diskoaren grabaketak. Zerbait fisikoan bihurtu da gure lana, disko batean, eta jendeak entzun egin du.

**Zuek, Jone eta Maialen, Su ta Gar eta Berri Txarrak artisten bi kantaren bertsoak egin dizue: "Itxaropena" eta "Maravillas". Zuen kasuan, Mikel, Niko Etxart eta Hertzainak,**



Ai Ama! taldean da Mikel Lertxundi Ariztegi urnietarra. HARITIK

**"Euskal Rock&Roll" eta "Aitormena".**

**J.I.:** Gure gustuko kanten proposamen-sorta egin genuen.

**E.D.:** Eta gurera hobekien egokitzen zirenak aukeratu genituen, kanta guztien artean.

**M.L.:** Guri ere aukera sorta eman zigun Kristinak eta bi aukeratu genituen.

**Rock eta metal doinuak dituzte oinarri aipatutako lau taldeek. Nolako izan da horiek trikitixara eramatea?**

**E.D.:** Batzuetan, beldurra ematen du jendearen erreazioak, rock doinuen bestelako bertsoak egin dugulako. Kontrara, interesgarria iruditzen zait, beste abesti bat ematen duelako.

**J.I.:** Egia da, moldaketa egiten hasten garen unetik, zuzenean, trikitixarekin hasten garela. Horrela, errazagoa da sortuko duzun bertsoak irudikatzea eta ez da horren bortitza instrumentu aldaketa.

**M.L.:** Egia da kanten mamia berbera dela, eta oso politak gelditu dira.

**Mamia aipatuta, zuenetik asko daukate bertsoak.**

**J.I.:** Bai, horretan ere ahalegindu gara. Gure kasuan, hiru ahotsetara egin ditugu abestiak eta balada bihurtu digu horietako bat. Horrek ere egiten du polit, gure kutsua eman izanak.

**M.L.:** Festa-giroa dute gure bi proposamenek.

**E.D.:** Beti daukagu aukera gure iritzia emateko eta asko lagundu digu Kristinak. Izugarria da, gainera, berak daukan sormena.

**J.I.:** Prozesu bat da, eta, bertan, guztien ekarpenak txertatzen saiatu gara.

**Askotariko musikariak egin diote ekarpena, zuekin batera, diskoari. Aberasgarria izan al da esperientzia, artista gehiagoren sorkuntza eza-gutzeko?**

**E.D.:** Ez ditugu aurrez aurre ezagutu proiektuan parte hartu duten gainerako artistak, baina beren lanak entzun ditugu. Oso interesgarria da, nork bere xar-ma ematen baitio diskoari. Oso gauza originalak atera dira.

**Gerora, hartu al duzue tartea diskoak ere berriro entzuteko?**

**M.L.:** Dezentetan entzun dugu diskoak. Oso pozik gaude, ez bai-kenuen espero; entsegu asko egin genituen eta merezi genuen bertan egotea.

**J.I.:** Diskoa bera atera aurretik asko entzuten genuen, baina ederra da orain jendeak entzun ahal izatea.

**E.D.:** Entsegu pila egin ditugu eta abesti kanta zatiak erakusten genizkien gertukoei. Baina, bat-batean, soinu-kalitate ona duen disko batean entzutea gure ahotsa... Ikaragarria da!

**Horrelako proiektu batean berriro parte hartzeko gogoak piztu al dizue "Haritik" diskoak?**

**M.L.:** Noski! Sortzen jarraitzeko gogoak eman digu. Guk geure taldeari jarraipena eman diogu. Sortuta genuen, jada, taldea, baina "Haritik" diskoan parte hartzeak bultzada eman digu.

**J.I.:** Gu ere astero ahalegintzen gara gelditzen, entseatzeko. Finen, motibazioa areagotzen dizu horrelako proiektuetan parte hartzeak.

**E.D.:** Kontzertu bat prestatzen ari gara orain, adibidez. Espero dugu, laster, jendaurrean erakusteko aukera izatea.

**"SORTZEN JARRAITZEKO GOGOAK EMAN DIGU "HARITIK" DISKOAN PARTE HARTZEAK"**



DEIALDIA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA ANDOAIN

## Zain dugu Agate deuna

Urtero bezala, Ageda deun egunaren bezperako usadioari helduko diogu eta berriro Andoaingo kale eta plazetan barrena ibiliko gara otsailaren 4an, asteartearekin, arratsaldeko seietatik aurrera, Goikoplazako Elizondo tabernaren aurrean azkeneko kantak urratuz amaitzeko.

Ahotsak prestatzeko helburuarekin eta kanta berriren bat ere ikasi behar baita, urtarrilaren 27an, astelehenarekin, eta

urtarrilaren 28an, asteartearekin, entseguak egingo ditugu Anbrosia Olabide egoitzako sarrera nagusian, ohi dugun bezala, iluntzeko 20:00etan hasita.

Ateri egon edo kazkabarra egin, Agate deunaren erronda kalean izango da berriro aurten, hutsik egin gabe. Errondaren ibilbidea ohikoa izango den arren, aurrerago horri buruzko xehetasunak emango ditu Manuel Larramendi Kultur Bazkunak.



Santa Eskea, iaz. AIURRI



KEMEN

## Antzerki amateurra, Saroben

Igande honetan, antzezlan Urnietan, 19:00tan hasita. Honatx, sinopsia: gizon bat urkatuta agertu da. Suizidioa dirudi, baina hilketa da. Gines eta Marga komisarioen laguntzaz, epaileak zer gertatu den jakin nahi du. Ikerketak ez du aurrera egiten: lekuko guztiak gezurretan ari dira!



ARKAITZ MENDOZA RODRIGUEZ

## "Musika akuarelak"

Piano-jotzailea eta orkestra zuzendaria da Mendoza, eta kantaria Intxausti. Ostiral honetan, Debussy eta Satie konpositore klasikoen emanaldia egingo dute Bastero Kulturgunean, "Bastero-kafe" zikloaren lehen emanaldian. 19:30ean hasiko da ikuskizuna. Mendoza Andoainean jaio eta txikitatik Donostian bizi izan da.



NAROA INTXAUSTI

## Sarrerak, salgai

Josetxu Piperrak eta Modus Operandi zuzenean ariko dira Andoaingo Gaztetxean, Gaizkiñe Andoaingo taldearekin batera. Datorren otsailaren 22an izango bada ere, hobe aurretik sarrera ziurtatzea. Keinu dendan eta Txuribeltz tabernan salgai daude Andoainean. Eskualdean, Zipotzan (Astigarraga), Goiz-Argin (Hernani) eta Ilargin (Lasarte-Oria).



AIURRI

ZOKKETA

ANTZERKIA

Aiurriko harpidedun izateak saria dakar

AiurriKIDeen artean 2 sarrera zozkatuko ditugu

Parte hartzeko modua:  
Idatzi "Miñan", zure izen-abizenak eta bidali:  
\* Whatsapp: 619 163 537  
\* E-posta: diseinua@aiurri.eus

Okm:

batzen gaituen distantzia

Egin zaitzez AiurriKIDE

AIURRI KIDE

## MIÑAN

### Artedrama konpainia

Urtarrilak 31, ostirala  
19:30. Bastero, Andoain

Ibrahima Balde Ginean jaio zen; baina, egun batean, amaren deiak etxea uztera behartu zuen, anaia txikiaren bila Europara joateko. Basamortua zeharkatu zuen, eta polizia, bahitzaile, mugalari eta abarrekin gurutzatu zen zeharkaldian. Afrikatik Europarako ibilbidean minak, egarriak eta goseak sorturiko sufrimendua ezagutu zuen.

Miñan (anaiatxo) Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da, Amets Arzallusek lehen pertsonan kontatua eta Artedramak antzerkira egokitua.

**Sorkuntza:** Ibrahima Balde - Amets Arzallus. **Zuzendaritza:** Ander Lipus. **Aktore zuzendaritza:** Manex Fuchs. **Interpreteak:** Ander Lipus, Sambou Diaby, Eihara Fernandez de Larrea, Mikel Kaye. **Argiztapena:** Oier Ituarte. **Eszenografia:** José Pablo Arriaga. **Musika:** Aitor Agiriano (Toro).





Ligaxkan nagusitasun handia erakutsi du Easo Basket Ernio taldeak. Haien atzetik sailkatu dira andoaindarrak. AIURRI

## Galdu arren, igoerako ligaxka jokatu dute

Infantil mailako mutilek emozioz beteriko partaidetzako liga jokatu dute. Azken partidaren elkarren aurka aritu ziren Easo Basket Ernio liderrak eta Akerbeltz Haundi Andoaingo taldeak. Donostiarrak nagusitu baziren ere, biak ariko dira igoerako ligaxkan

### Erredakzioa ANDOAIN

Infantil mailako Akerbeltzek igoera ziurtatuta dauka, ligako azken partida liderraren aurka galdu arren:

**SASKIBALOA**  
PARTAIDETZA LIGA, 3. MULTZOA

#### SAILKAPENA

1	EASO BASKET	(10-0)	18 p.
2	AKERBELTZ	(8-2)	18 p.

### 40 AKERBELTZ HAUNDI 74 EASO BASKET ERNIO

Akerbeltz Haundi taldeak, sei taldeko ligan, aurkari bakarra izan du eta hori Easo Basket Ernio taldea izan da. Partida guztiak irabazi dituzte donostiarrak, eta, azken jardunaldian, gainera, andoaindarrak aise garaitu zituzten. Azken partida irabazteko ilusioa bazegoen An-

doainen, baina jokoak erakutsi du oso erronka zaila zela. Izan ere, donostiarrak 614 puntu lortu dituzte hamar jardunalditan. Gainerako taldeak oso atzean daude, saskiratzei dagokionez. Estatistikei erreparatuta, alde handia dago Easo eta gainerakoen artean. Akerbeltz Haundi taldeak, halere, meritu osoz lortu du bigarren postua.

### Ligako azken partida Allurralden



Akerbeltz Haundi taldea, atsedernaldi batean. AIURRI



Galdu arren, andoaindarrak igoerako ligaxkan ariko dira. AIURRI



Ligaxkan saskiratzen gehien egin duen bigarren taldea da. AIURRI

SARBERRAK ENTRADAS

ANSA II

KUTXABANK  
**MASTERS**  
LIGAREN 2022

**Urtarrilak 25**  
Larunbata

16:30etik aurrera  
Galarreta Jal Alai  
Hernani

1. Partida (3 setera)  
**IRAZU • APEZETXEA vs GURRUTXAGA • ESKUDERO**

Kutxabank Masters Txapelketa (30 tantora)  
**ANSA II vs BARRENETXEA IV**

3. Partida (3 setera)  
**EZKURRA II • ZUBIRI vs ALDABE • JUANENEA**

BARRENETXEA IV





## Riad andoaindarraren debuta

Riad Mouaffaq Boudali andoaindarra Kick Boxer kirolaria da eta datorren otsailaren 8an Tafallako Ereta pilotalekuan debuta egingo du, K1PRO lehia. Aurkaria Alex Torreguitart nafarra da, Funes herrikoa. Burlatako Kanku Gym klubak antolatuta du kirol jaialdia.

## Euskaldunaren garaipen berria, lidertza sendotzeko

Gorengo Erregional mailan Alle-rruren zelaian irabazi zuten (0-2), aurreko asteburuan. Lehen itzulua lidertotzan amaitu dute, 33 punturekin. Atzetik datoz Santo Tomas Lizoea (30) eta Rota-teta (29). Larunbat honetan Usurbilen ariko dira (15:30).

## Igerilekua, berriro, zabalik

Galdara nagusia matxuratu eta, hainbat egunez, igerilekua erabili ezinik izan dira Andoaingo Allurralde igerilekuko erabiltzaileak. Astearteaz geroztik berriro zabalik dago, eta ikastaro guztiak martxan daude berriro. Kirol Sailak, datozen egunetan, erabiltzaileei zer nolako konpentsazioa proposatu erabakiko du.



Leizaran Lanbroa taldea. AIURRI

## Leizaranen garaipena, urteko lehen jardunaldian

Ameztoi Zarautz taldea 33-23 garaitu zuten eta, une honetan, sailkapenean hirugarren postuan dira

**Erredakzioa ANDOAIN**  
Garaipenari esker, jauzia eman du sailkapenean. Eta, hara, lehia estua dago hainbaten artean! Puntuak eta *gol average*-a garrantzi berezikoak izango dira.

### ESKUBALOA

EUSKAL LIGA. 11. jardunaldia

### SAILKAPENA

1	Urdaneta	20 p.
2	Ereintza	18 p.
3	Leizaran Lanbroa	14 p.
4	Malape	14 p.
5	Irauli	14 p.
6	Urdaibai	14 p.

### ASTEBURUAN

Leizaran Lanbroa-Zuazo



Ansak indartsu ekin dio txapelketari. ORIAMENDI

## Ligaxkako lehen partidan Ansak ez zion aukerarik eman Azpirozi

Urnietarrak bikain ekin dio Kutxabank Masterseko tituluaren defentsari, 30-13ko garaipena lortuz

**Erredakzioa URNIETA**  
Oriamendik hedabideetara bidalitako kronika argia da: urnietarra erraz aritu zen. Honatx, kronikak jasotako laburpena: "Ansak konfiantza osoz jarraitzen du buruz burukoan eta gaintitu beharreko aurkaria dela erakutsi du. Azpirozen aurkako partidan Ansak hobeto atera zuen, erretoan aise moldatu zen eta, batez ere, pilotean fin aritu zen. Azpiroz ondoen moldatzen den tokian ere, urnietarra nagusitu zen. Partida parekatuagoa espero bazen ere, aurrelari urnietarrak ez zion Azpirozi aukerarik

eman eta 30-13 gaintitu zuen. Ansa II.ak bere lehen lau puntuak lortu ditu, ligaxkako fasean, eta Azpiroz negatiboan geratu da. Nafarrak hurrengo partida irabazi behar du. Gipuzkoarrak, berriz, hanka bat du finalean".

**Larunbat honetan, Ansa II vs Barrenetxea IV**  
16:30ean hasita, Kutxabank Masters Txapelketaren bigarren jardunaldia jokatuko da Galaretan. Ansak lor dezake finaleko txartela eta, emaitzaren arabera, aukerak asko murriztuko zaizkio Azpirozi.

ZOZKETA

## Erremontez gozatu nahi?

**AiurriKIDE bazara,** astero-astero, sarreren zozketan parte har dezakezu.

**Okm:** batzen gaituen distantzia

**Idatzi "Erremontea",** zure izen-abizenak eta bidali:

- **Whatsappa:** 619 163 537.
- **E-posta:** [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)

Egin zaitez AiurriKIDE

**AIURRI KIDE**

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## MUSIKA

**ANDOAIN "Musika akuarelak"**  
Arkaitz Mendoza, Naroa Intxausti.  
Urtarrilak 24, ostirala.  
19:30, Bastero.

**ANDOAIN Kontzertua Gaztetxean**  
Gaizkiñe, Josetxu Piperrak eta  
Modus Operandi zuzenean, datorren  
otsailaren 22an.  
Sarrerak salgai: Keinu, Txuribeltz.

## BARRIKOTEA

**ANDOAIN Batzokia**  
Txotx garaiko menua eta sagardo  
kupel txikitik edateko aukera.  
Urtarrilak 24, ostirala.  
20:30, Batzokia.

## ANTZERKIA

**URNIETA "El caso camping"**  
Misterioa eta suspentsea Kemen  
teatro konpainiaren eskutik.  
Urtarrilak 26, igandea.  
19:00, Sarobe.

**ANDOAIN "Miñan"**  
Ibrahima Balde eta Amets  
Arzallusen liburua oinarritzat  
harturik, Arte-Dramak ekoiztuta.  
Urtarrilak 31, ostirala.  
19:30, Bastero.

**URNIETA Katagorriaren fabula**  
Hitzik gabeko ikuskizuna,  
La Baldufa konpainiaren eskutik.  
Otsailak 2, igandea.  
17:30, Sarobe. 3 euro.



Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore eta Txapas. KATXIPORRETA

**ANDOAIN "Ostirala iritsi da"**  
2023ko azaroan argitaratutako Txapasen kaxa magikoa ipuin eta disko  
ilustratuetan dago oinarrituta saioa. Josu Txapartegi (Zarautz, 1946) –  
Txapas ezinez ezaguna– euskal akordeoilari, idazle, abesbatzako  
zuzendari, organo-jole eta sortzaileak bere bizitzan hamaika abesti sortuak  
dauzka, eta, abesti horien artean, "Ostirala iritsi da" Txapasek sortutako  
kanturik ezagunena, ostiralero ikastetxe askotako jolastokietan entzun  
daitekeena. Porrotx, Marimotots eta lagunen berriena iristear da Andoinera.  
Urtarrilak 26, igandea. 11:00, Bastero. Sarrerak agortuta.

## BATZARRA

**URNIETA Denda Berri**  
Urteko Ohiko Batzar Orokorreko  
deia luzatu du Urnietako  
pentsiodunen eta  
erretiratuen elkarteak.  
2024eko balantzearen  
aurkezpena eta onarpena,  
hala badagokio; 2025erako  
jarduera eta aurrekontua; galde-  
erreguak.  
Urtarrilak 25, larunbata.  
17:30, Elkarteen etxea.

## TAILERRA

**ANDOAIN Emozioak eta zientzia**  
La Salle Berrozpek antolatuta.  
Urtarrilak 25, larunbata.  
11:00, Bastero.

## ENTSEGUAK

**ANDOAIN Santa Eskea**  
Larramendi Bazkunak antolatuta.  
Urtarrilak 27 eta 28.  
20:00, Anbrosia Olabide.


## ZINEMA



**ANDOAIN**  
**BASTERO**  
**Las vidas de Sing Sing**  
Urtarrilak 25,  
larunbata. 19:30.  
Urtarrilak 26,  
igandea. 19:30.

Urtarrilak 27, asti.  
17:00, 19:30.

**Bambi**  
Urtarrilak 25,  
larunbata. 17:00.  
Urtarrilak 26,  
igandea. 17:00.



## SINOPSISIA

**Las vidas de Sing Sing**  
**Zuzendaria:** Greg Kwedar. **Aktoreak:** Colman Domingo, Clarence  
Maclin, Sean Blackman, Paul Raci, David Giraudy, John Divine G  
Whitfield, Patrick Griffin,... **Herrialdea:** AEB (2024). **Hizkuntza:**  
Gaztelania. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 107 m.

## Oscar sarietarako hautagaietako

Sing Sing Zentro Korrekzionalean, munduko segurtasun  
handieneko espetxe ospetsuenetako batean, espetxeratutako  
preso talde txiki batek bere antzezlan propioa muntatu nahi du  
antzerki-tailer baten zati gisa. Arte eszenikoaren bidez, gizon horiek  
mundua borrokarako toki gisa ikustea lortzen dute. Oscar  
sarietarako hautagaitzat hartu du batek baino gehiagok, AEBn.



## TXINTXARRIK KAZETARIA BEHAR DU

Ostiraletatik igandetara lan egiteko

## • Kontuan izango ditugunak:

- Kazetaritza. Komunikazioa edo pareko ikasketak
- Euskara eta gaztelera ahoz eta idatziz menperatzea (gubxienez C1 maila izatea).

- Multimedia kazetaritza: sare sozialak, webgunea, edizio programak...
- Argazkilaritza eta bideogintza ezagutzak izatea.
- Lasarteoriatarra izatea edo herria ezagutzea

Curriculumak urtarrilaren 26ra bitarte jasoko ditugu helbide elektroniko honetan:  
txintxarri@ttakun.eus

txintxarri 



KOMUNITATEA

IRUNBERRI KULTUR ELKARTEA ANDOAIN

**Irunberri, 26 urtez atea zabalik**

Irunberri kultur elkarteak gorabehera asko bizi izan ditu orain dela 26 urte atea ireki zituenetik. Andoaindar gehienok ezagutzen ditugu Kale Nagusian kokatzen diren taberna zein elkarte (txokoa, soziedadea...). Aspaldi, Kale Nagusia Andoaingo erdigunea eta bizitza gehien zuen zonaldea zenean, apostu itzela egin genuen bertan guztiontzat irekia dagoen gunerik berri bat zabaltzeko.

Bertan, festa, mus-txapelketak, hitzaldiak, bideo-emanaldiak, kontzertuak, haurrentzako egun bereziak, kantu-jira, bertso-afariak eta beste hainbat kultur-ekitaldi antolatu izan ditugu.

Ezin ahaztu ere Kilometroak, Herri Urrats edo Nafarroa Oinez egun berezietarako autobusa antolatu zein horiek indartzeko dinamika desberdinak antolatzen egindako lan boluntario guztia.

Kulturaz gain, politikoki aktiboa den gunea izan da beti Irunberri, noski. Nazioarteko Borroka desberdinekin solidarioak izan gara euskal herritarrek beti eta horrek ere lekua izan du gurean. Gatazka sozial zein nazionalak ere hausnarketarako tartea izan dute hasieratik Irunberrin eta horren adierazle argiena herriko kolore eta mota guztietako eragile desberdinek elkartean izandako bilera



Irunberri eraberritu dute. IRUNBERRI

amaigabeak dira. Zenbat ordu pasa ote ditugu mundua konpondu nahian?

**Ordutegia**

- Asteazkena eta Osteguna: 17:00-23:00.
- Ostirala: 17:00-01:00.
- Larunbata: 11:00-02:00.
- Igandea: 11:00-15:00/17:00-22:00.

**Eskaizta**

- Osteguna: Pintxo-potea.
- Ostirala eta larunbata: afariak.
- Asteazkena eta igandea: txokolatea eta txurroak.

Bukatzeko, horra asteburuko hitzordua: ostiral honetan, Euskal Herriko mus-txapelketa Irunberrin.



Iazko ospakizuneko argazkia. AIURRI

**Jaia egingo dute Olagainen, hilaren 1ean**

Andoaingo Olagain auzoko eskolan egun osoko ospakizuna antolatu dute, egitarau zabalarekin

**Erredakzioa ANDOAIN**

Datorren otsailaren 1ean Olagain auzoan egun osoko ospakizuna egingo dute. Gonbita luzatuta dago antolatzaileen aldetik: "Animatu zaitezte ekitaldi polit honetan parte hartzea eta familian, lagunartean eta konpainia onean egun ederraz gozatzera".

**Egitaraua**

- 12:00** Maizorri txalaparta-taldea, Alberto Agirre abesbatza, txistulariak eta dantzariak.
- 14:30** Bazkaria: Entsalada, txerri masailak ardo beltzean patata purearekin erregosiak, kafea eta gazta-tarta. Prezioa: 30 euro. Izen-emateko garaian ordaindu behar da. Azken eguna: Urtarrilak 28, asteartea.

Arratsaldean dantzaldia auzoko tabernan edo Musika Eskolan.

**Iazko ekainean ere jaia egin zuten**

Iazko ospakizunean agerian geratu zen Olagainetik atxikimendua. Izan ere, 2024ko ekainean ehun lagun elkartu ziren ospakizunaz gozatzera. Aburuzan bazkaldu ostean, auzoan bertan segida eman zioten ospakizunari. Olagain auzoak batu zituen guztiak, orduko hartan. Oraingoan ere ez da ezberdina izango.



Urtarrilean izango dira saioak. YOGAKIDS

**Yoga lantegiak Andoainen, HH eta LH mailakoentzat**

Familia lantegiak antolatu ditu Andoaingo Euskara lantegiak, urtarrilean, HH eta LH mailako ikasleentzat. Eider Hidalgok gidatua, honatx egitaraua:

- Urtarrilak 24, ostirala. Aita Larramendi ikastolak Bazkardon duen Juanita Alkain erakinean. HH4 eta HH5 mailakoentzat.
- Urtarrilak 27, astelehena. La Salle Berrozperen HH mailako erakinean, HH2 eta HH3 mailakoentzat.
- Urtarrilak 31, ostirala. Ondarreta Herri Eskolaren HH erakinean, Osasun Etxearen atzealdean. LHkoentzat.

Saio guztiak arratsaldeko 17:00tan hasiko dira. Izen-ematea: 692 193 555.

**Teknologia, zientzia eta emozioei buruzko lantegiak, Basteron**

La Salle Berrozpek teknologiari, zientziari eta emozioei buruzko lantegiak egingo ditu, larunbat honetan, urtarrilak 25, Basteron, goizeko 11:00etatik eguerdikoko 13:00etara. Doakoak izango dira eta Andoaingo zein inguruko familiek eta adin guztietako pertsonen parte hartu ahal izango dute. Lekua bermatzeko, aldeztu aurretik izena emateko gomendioa luzatu dute, telefonoz deituz (943 590 557) edo lasalleberrozpe.eus webgunearen bidez. Izena eman gabe ere badago joatea, baina ez da bermatzen lekua. Lantegi interaktiboak izango dira, eta, haien bidez, teknologiaren, zientziaren eta emozioen munduan murgilduko dira parte-hartzaileak.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN  
**Amaia Errazkin Ezeiza**  
Amaia Errazkin Ezeizak urtarrilaren 27an 28 urte beteko ditu eta bere amonak, Miren Olazabalek, zoriontzen du. Muxu handiak eta ondo ospatu! Etxekoak.



ANDOAIN  
**Zorionak Laida eta Nerea!**  
Zorionak bikote! Egun ederra pasa dezazuela opa dizuegu! Behar bezala ospatuko dugu, jakina! Muxu erraldoi bat etxekoan partetik!

**ENBA sindikatuaren urteko batzarra, hilaren 31n, Oronan**

Urtarrilaren 31an, ostiralarekin, Gipuzkoako ENBAren 33. batzarra ospatuko da. Urteko errepa-soa egiteaz gain eta elkarteko diru kontuak onartu ostean, 2024ko martxoan hil zen Ixiar Arteaga omenduko dute, 25 urtez baserriarren alde egindako lana eskertu asmoz. Behi haragiaren merkaturaren ulertzeko Javier Lópezek hitzaldia emango du.

**Lan-eskaizta: Euskaraldiaren dinamizatzailea**

Euskaraldirako dinamizatzailea behar dute Urnietan. Lau orduko jarduna izango da, otsailaren 3tik ekainaren 6ra bitarte. Honako hauek dira bete beharreko baldintzak: euskara maila egokia izatea, idatziz zein ahoz; Urnietan ezagutzea; euskaltzalea izatea eta euskalgintzaren ezagutza izatea. Euskaraldia maiatzaren 15etik 25era ospatuko da "Elkar mugituz egingo dugu" lelopean. CVa jon@taupamugimendua.eus e-postara bidali behar da.

Urnietako udala





Alde Zaharreko Kañoyetan elkarteak gauerdian egin zuen ereserkiaren estreinaldia. AIURRI

# Andoaingo jatorria duten ereserki berriak

Alde Zaharreko Kañoyetan eta Egia auzoko Maria Reina Parrokia-Egiako Tolosarrak elkarteek ereserki berria aurkeztu zuten jendaurrean, aurtengo Donostia Egunean. Oartzabal izan da bien konposatzailea. Hitzak, berriz, Berrondorenak dira

## Erredakzioa ANDOAIN

Itzal handikoa da Joxe Mari Oartzabalen sorkuntza-lana, donostiarren artean. Urte haue-  
tan guztietan hiriburuko maki-  
na bat elkarteren ereserkiak  
sortu edo moldatu izan ditu,  
danborrek eta kupelek jo ditza-  
ten. Zehazki, hiru ereserkiren  
moldaketak egin ditu: Alde Zaha-  
rreko Euskal Billera, Gaztelu-

bide, eta Ardatza Herria. Berriak  
sortu, bestalde, hamar dira de-  
nera: Mons (Intxaurrondo), Gu-  
rea, Sauxe eta Altzako Herri  
Ikastetxeko gurasoak (Altza),  
Club Ciclista Donostiarra, Kost-  
kas futbol taldea, Urtoki eta  
Santigomendi (Amara), Kañoye-  
tatan (Alde Zaharra), eta Ma-  
ria Reina Parrokia-Egiako To-  
losarrak (Egia). Guzti horien

artetik, Joxerramon Berrondok  
seiri ipini die hitza. Astelehena  
zen egun handia eta bi kanturen  
estreinaldian ezin egileek hutsik  
egin. Bietan izan ziren sortzai-  
leak, danborraden interpretazioa  
bertatik bertara entzuteko eta,  
bide batez, partaide guztien es-  
ker ona jasotzeko. Pozarren  
geratu ziren Andoaingo bi pro-  
tagonistak.

## Egiako Tolosarrak konpainia



Egiako Maria Reina Parrokia-Egiako Tolosarrak taldeko buruzagiekin. AIURRI



Hogeita bost urtez antolatu dute danborrada, Egia auzoan. AIURRI



Joaquin Urkola, Egiako kupele-joleak zuzentzen. AIURRI

## Aiurrikide izatea %30 merkeago

Aiurrik **lehenasunezko mezenasgo jarduera izendapena** jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

Aiurriko harpidedun zaren horri, **zerga onurak ezarriko zaizkizu 2024ko jardueran** Aiurriari egin diozun ekarpenarengatik.

Horrenbestez, zure kuota **%30 merkatuko** zaizu errenta aitortzen egiterakoan.



**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

Egin zaitez aiurrikide

**AIURRI**  
**KIDE**